

ehbildu

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI / A LA MESA DE JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA

Ekimen mota / Tipo de Iniciativa: **Arauz besteko proposamena / Proposición No de Norma**
Data / Fecha: 2024-09-25
Aurkezlea / Proponente: Méndez Urigoitia, Raul(EHB)

GAIA / ASUNTO

Bizkaiko garraio publikorako deskontuen luzapena

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UMX7-PEDW-PZH3-C8XI
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.jggbizkaia.eus

Sin./Fdo.: MENDEZ URIGOITIA, RAUL 2024-09-25
EH Bildu
EH Bildu



BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI

Raul Méndez Urigoitia, EH Bildu batzarkide taldeko bozeramaile ordeak, **Bizkaiko garraio publikorako deskontuen luzapenari** buruzko ARAUZ BESTEKO PROPOSAMENA aurkezten du, Bizkaiko Batzar Nagusiek Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa sustatzeko Batzordean eztabaidatu eta onartu dezaten.

ARRAZOIKETA

2022ko udaberrian zehar, EH Bilduk garraio publikoan deskontuak eskaintzeko sistema bat martxan jartzea eskatu zuen euskal erakunde nagusietan, hala nola Bizkaiko Batzar Nagusietan, COVID-19aren pandemiaren aurreko datuei zerbitzu horien erabilera-maila berreskuratzeko.

Hala ere, gure proposamenak atzera botata, hobari-politikak ez ziren martxan jarri 2022ko irailera arte, eta 2023an eta 2024an luzatu ziren. Beharrezkoa izan zen Estatuak neurri horiek planteatzea, EAEko instituzioek eta gobernuek urrats hori eman zezaten.

Neurri horiek, zalantzarik gabe, EAEko lurralde historikoetan garraioaren erabilera handitzen lagundu dute azken urteotan, ez bakarrik 2019ko datuak gaindituz, baita azken hilabete hauetako Bizkaian errekor zifrak ezarriz ere.

Jendartearen eta talde politiko gehienek ustez, etorkizun hurbilean deskontu progresiboak egin behar direla aipatu da behin baino gehiagotan, bidaiarien erabileraren eta posizio sozioekonomikoaren arabera, doakotasunerantz.

Azken helburuak Txartel Bakarra izan behar du, tarifa-sistema bateratua duena eta gehien behar duten kolektiboek bereziki mesede egingo diena, hala nola gazteei, langabeei, desgaituei edo familia ugarietara, besteak beste.

Baina, neurri horiek denboran atzeratzen ari dira, eta, beraz, iristen diren arte beharrezkotzat jotzen dugu ehuneko batean oinarritutako hobari politikarekin jarraitzea.

Horregatik guztiagatik, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa sustatzeko Batzordean eztabaidatzeko ondoko Arauz Bestekeo Proposamena egiten dugu:



ARAUZ BESTEKO PROPOSAMENA

Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diete:

- 1.- Bizkaiko garraio publikoan %50eko deskontua luzatzea 2025. urte osoan.
 - Gaur egun euskal erakundeek finantzatzen duten %20ko deskontua mantentzea.
 - Gainerako %30ko deskontua, estatuak laguntza horiekin ez jarraitzea erabakitzen badu, euskal instituzioek beren gain hartzeko konpromisoa finkatzea.
- 2.- Deskontu horiek orain arteko baldintza berberetan aplikatuko dira BARIK sisteman barruan daude garraio bide eta bidaiaria txartel berdinetan.
- 3.- Errentan eta garraio publikoaren erabileran oinarritutako behin betirako deskontu sistema progresiboa zehaztu, planifikatu eta abiarazteko prozesua azkartzea.

Bilbon, 2024ko irailaren 25ean.

Raul Méndez Urigoitia
EH Bildu batzarkide taldeko bozeramaile ordea

